

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ASTIGARRAGAKO UDALA

Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetza

Iragarkia

Astigarragako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak 2020ko urriaren 27an Berdintasun arloko dirulaguntzen deialdi publiko berria egitea ebatzi du.

Astigarragan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten elkarte, pertsona juridiko edo fisiko-etarako dirulaguntzen oinarri espezifikokoak.

1. Xedea.

Deialdi honen xedea da pertsona fisiko eta dirua irabazteko asmorik gabeko pertsona juridiko, fisiko, edota elkarteei Berdintasun arloan eman beharreko laguntzen programa arautzea, hain zuzen ere, Astigarragako herrian emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu eta xedearekin lotutako programa, proiektu eta jarduerak aurrera eramateko. Izan ere, Batzorde honen helburua berdintasun hori lortzea da.

2. Pertsona onuradunak.

Deialdi honetan hurrenak sar daitezke:

– Pertsona fisikoak Astigarragako herrian emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduerak garatzen dituztela egiaztatzen dutenak.

– Dirua irabazteko asmorik gabeko pertsona juridiko edota elkarreak, Astigarragako herrian emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduerak garatzen dituztela egiaztatzen dutenak.

3. Dirulaguntza jaso dezaketean jarduerak.

Ondorengoak dira dirulaguntza jaso ditzaketean 2020ko jar-duera eta programak:

a) Emakumeen ahalduntzea eta haien autonomia, independentzia eta garapen integrala bultzatzeko helburua dutenak, batez ere diskriminazio anizkoitza edota gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden emakumeen ahalduntzea.

b) Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko elkartegintza sustatzeko helburua duten jarduerak eta programak.

c) Berdintasunaren aldeko prestakuntza ekintzak, hainbat alorretan: kulturean, osasunean, kirolean, gizarte-partaidetzan eta abarretan, eta, batez ere, Astigarragako elkarreetan genero ikuspegia txertatzea xede dutenak.

d) Emakumeek bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte hartzea sustatzeko helburua duten jarduerak eta programak, bereziki diskriminazio anizkoitza edota gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden emakumeak kontuan hartuta.

e) Emakume eta gizonen berdintasunari, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren prebentzioari eta horren aurkako borrokari, eta genero rolak eta estereotipoak kentzeari buruzko sentsibilizazioa eta informazioa zabaltzeko jarduerak.

f) Emakumeen eskubideak aitortzeko eta hedatzeko jarduerak.

AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

Igualdad, Convivencia y Participación

Anuncio

La Junta de Gobierno Local, por de fecha 27 de octubre de 2020, ha aprobado la nueva convocatoria de ayudas del ámbito de la igualdad.

Bases específicas para la concesión de subvenciones a asociaciones y/o personas jurídicas o físicas que fomenten la igualdad de mujeres y hombres en Astigarraga para el 2020.

1. Objeto.

Es objeto de la presente convocatoria la regulación del programa de ayudas a conceder a personas físicas, jurídicas y/o asociaciones sin ánimo de lucro, para la realización de programas, proyectos y actividades relacionadas con los objetivos y fines de promoción de la Igualdad de mujeres y hombres en el municipio de Astigarraga.

2. Personas beneficiarias.

Podrán acogerse a esta convocatoria:

– Las personas físicas que realicen actividades de promoción de la igualdad de mujeres y hombres en el municipio de Astigarraga.

– Las asociaciones y/o personas jurídicas sin ánimo de lucro que realicen actividades de promoción de la igualdad de mujeres y hombres en el municipio de Astigarraga.

3. Actividades subvencionables.

Las actividades y programas del 2020 subvencionables son los siguientes:

a) Actividades y/o programas orientados a impulsar el empoderamiento de las mujeres, su autonomía, independencia y su desarrollo integral, especialmente el empoderamiento de aquellas mujeres en situación de discriminación múltiple y/o en situación o en riesgo de exclusión social.

b) Actividades y/o programas dirigidos a fomentar el asociacionismo en favor de la igualdad de mujeres y hombres.

c) Acciones formativas en materia de igualdad en los diferentes ámbitos, cultura, salud, deporte, participación social etc. Especialmente aquellas dirigidas a incorporar la perspectiva de género en las asociaciones de Astigarraga.

d) Actividades y/o programas para potenciar la participación de las mujeres en todos los ámbitos de la vida política, económica, social y cultural, teniendo especialmente en cuenta a mujeres que se encuentran en situación de discriminación múltiple y/o en riesgo de exclusión social.

e) Actividades de sensibilización y de información sobre la igualdad de mujeres y hombres, la prevención y lucha contra la violencia hacia las mujeres, así como la eliminación de roles y estereotipos de género.

f) Actividades de reconocimiento y difusión de los derechos de las mujeres.

g) Emakumeek, emakume-taldeek eta mugimendu feministak historian zehar eta gure egungo gizartera arte egindako ekarpenak aitortzeko eta berreskuratzeko helburua duten jarduerak.

h) Gizonek laneko berdintasunaren alde duten konpromisoa sustatzea xede duten sentsibilizazio, prestakuntza eta informazio jarduerak, bai eta gizonen erantzunkidetasuna etxeko eta zaintzako zereginetan, laneko eta etxeko balio-aldaketa eta, genero rol eta estereotipoak kentzea sustatzea xede dutenak ere.

i) Gizonen eta emakumeen berdintasunaren aldeko elkarrearen jarduera arruntaren mantentzea.

j) Salbuespenez, Astigarragan sustraiturik dauden ikuskizunak, ospakizunak eta urteurrenak antolatzea ere diruz lagundu daitezke, genero berdintasunarekin harremana izanez gero.

k) Diruz lagunduko zaie emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren eremuan Astigarragan lan egiten duten taldeei eta talde horietako pertsonaei, prestakuntza ikastarotan, mintegietan eta kongresuetan parte hartzen dutenean, beti ere horiek genero berdintasunarekin lotuta badaude.

Ezinbesteko baldintza izango da programatutako jarduera guztiek, bere diseinu eta garapenean, ondokoak jasotzea:

– Bizitza pertsonala, soziala eta familiakoa kontziliatzen laguntzen duten neurriak (ordutegiak, zerbitzuak edo kontziliarioak laguntza zehatzak, etab.).

– Aurkezten diren jarduerak garatuko diren tokien irisgarritasuna.

4. Eskariak aurkezteko epea.

Eskaerak Udalak prestatutako instantzia eredu ofiziala beteaz egingo dira. Elkarrean edota dirua irabazteko asmorik gabeko persona juridikoen kasuan, eskaera horien ordezkari eta arduradunek formalizatu beharko dute.

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea: Oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik 2020ko azaroaren 30 arte.

Eskaerak aurkeztu behar dira Astigarragako Udaletxeko erregistroan edo telematikoki www.astigarraga.eus helbidean. Halaber, Herri administrazioen administrazio-prozedura ekidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkez daitezke.

Eskaria osatzeko baldin badago, pertsona fisiko, juridiko edo elkarteek 10 eguneko epea izango dute, beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu ahal izateko. Ezarritako epean egin ezear, eskaria artxibatu egingo da, beste inolako tramiterik gabe.

5. Dokumentazioa.

Eskaerak, Astigarragako Udaleko dirulaguntzak emateko erregelamenduaren 7. artikuluan zehaztutako dokumentazioarekin batera helaraziko dira (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA 2006/02/23).

Honetaz gain, elkarteek eta pertsona juridikoei hauek aurkeztu beharko dira: Egundaino garatutako jarduerak, helburuak, baliabide pertsonalak eta materialak, etab. Eskariak osatu gabe agertuz gero, 10 eguneko epea izango da hutsuneak betetzeko; epe hori igarotzen bada eskaria osatu gabe, artxibatu egingo da, beste inolako tramiterik gabe.

6. Eginbeharrak.

1) Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituzten entitate edo pertsona onuradunek, Astigarragako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren 5. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte, eta bereziki:

g) Actividades dirigidas al reconocimiento y recuperación de las aportaciones de las mujeres, de los grupos de mujeres y del movimiento feminista a lo largo de la historia y hasta nuestra sociedad actual.

h) Actividades de sensibilización, formación y/o información dirigidas a fomentar el compromiso de los hombres en el trabajo en favor de la igualdad, así como actividades que fomenten la corresponsabilidad de los hombres en las tareas domésticas y de cuidado; el cambio de valores en el ámbito laboral y doméstico y la eliminación de roles y estereotipos.

i) Mantenimiento de la actividad ordinaria de la Asociación a favor de la igualdad de mujeres y hombres.

j) Excepcionalmente, podrán subvencionarse la organización de eventos, celebraciones, aniversarios, que se consideren de arraigo demostrado en Astigarraga, que tengan relación con la igualdad de género.

k) Se podrá subvencionar la participación en cursos de formación, seminarios y congresos, que tengan relación con la igualdad de género, a los colectivos o personas pertenecientes a los mismos que trabajen activamente en Astigarraga en el ámbito de la igualdad real de hombres y mujeres.

Será requisito imprescindible que todas las actividades programadas contemplen en su diseño y desarrollo:

– Medidas que faciliten la conciliación de la vida personal, social y familiar (horarios, servicios o apoyos concretos a la conciliación, etc.).

– La accesibilidad de los lugares donde se realicen las actividades presentadas.

4. Solicitudes y plazo de presentación.

Las solicitudes deberán formalizarse en el modelo de instancia oficial elaborado por el Ayuntamiento. En el caso de asociaciones o personas jurídicas sin ánimo de lucro la instancia la deberá de suscribir la persona representante.

Las solicitudes deben de presentarse en el plazo a partir del día siguiente a la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa hasta el 30 de noviembre de 2020.

Las mismas se deben presentar telemáticamente en www.astigarraga.eus. Así mismo, también podrán presentarse en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Si la solicitud estuviera incompleta, las personas físicas, jurídicas o asociaciones contarán con un plazo de 10 días para aportar la documentación necesaria. Si en el plazo establecido no lo hicieran, se procederá al archivo de la solicitud sin más trámite.

5. Documentación a aportar.

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación establecida en el artículo 7 del Reglamento para la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Astigarraga (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 23/02/2006).

Además, las asociaciones y las personas jurídicas deberán presentar: actividades desarrolladas hasta la fecha, objetivos, medios personales y materiales, etc. En caso de que las solicitudes estuvieran incompletas, se concederá un plazo de 10 días para la reparación de la carencia y, una vez transcurrido este plazo sin que se haya completado la solicitud, se procederá al archivo de la misma sin más trámites.

6. Obligaciones.

1) Las personas o entidades beneficiarias que hayan recibido subvenciones de esta convocatoria, deberán cumplir las obligaciones que establece el artículo 5 de la ordenanza que regula las subvenciones del Ayuntamiento de Astigarraga, y en particular las siguientes:

a) Dirulaguntza emateko arrazoi diren jarduerak gauzatzeta eta dirulaguntza emateko erabakian jarritako baldintzak epe barruan bete direla egiaztatzea.

b) Dirulaguntza eskaintzeko garaian kontuan hartutako atalen batean adaketa gertatuz gero, eskaini duen organoari horren berri ematea.

c) Helburu bererako beste administrazio edo erakunde publikotatik jasotako dirulaguntzen edo izandako diru-sarreraren berri ematea Astigarragako Udalari.

d) Jarduerari lotutako publizitatean Astigarragako Udalaren babesa adierazi beharko da Udalaren armarría txertatuz.

2) Diruz lagundutako jarduera guztietan betetzea 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarriko Legea, 2014-03-04ko Astigarragako Osoko Bilkurak onartutako hizkuntz-erabilera irizpideak eta Euskadiko Toki Erakunde buruzko 2/2016 Legea.

3) 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoak, xedatutako printzipio orokorrak betetzea eta hizkuntzaren eta irudien erabilera sexistarik ez egitea eta konkretuki: Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza era ez sexistan erabili beharko dute, emakumeen edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexistak saihestu eta sustatu berdintasun balioekiko irudia, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta roletako eta genero-identitateetako aniztasuna.

Azkeneko memoriari gehitu beharko zaizkio pertsona onuradunen, erabiltzaileen eta dirulaguntza jasotako proiekturako kontratatutakoen datuei dagokienez, sexuaren arabera bereizketa.

Gutxienez jardueraren pertsona onuradunen % 40a emakumezkoak izan behar dute. Salbu, maskulinitateak genero ikuspegitik lantzen badira.

4) Udalaren hondakinen Kudeaketa ordenantzak eta protokoloak jasotakoa betetzea.

7. *Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.*

Eskabideak Berdintasun arloak izapidetuko ditu, eta ebazpen proposamena Berdintasuna eta partaidetza batzordeak egingo du.

8. *Dirulaguntzak esleitzeko irizpideak.*

Dirulaguntzak esleitzeko unean, puntu hauek baloratuko dira:

a) Aurkeztutako programaren egitura eta kalitate teknikoa, honi gehituz; dagoen beharrari buruzko alde aurreko azterketa, helburuen formulazioa, erabiltzen den metodologia, proposatutako jarduerak, aurrekontua, kronograma, aurreikusitako eragina (pertsona hartzaileak) eta jarraipen eta ebaluazioa egiteko bitartekoak: Gehienez 20 puntu.

b) Biztanleria hartzaileak aurkeztutako jarduera edota programetan izango duen partaidetza: Gehienez 10 puntu.

c) Programa edo jardueraren diseinu eta gauzatzean kontuan hartzea askotariko bereizkeria jasaten duten eta gizarte bazterketa arriskuko egoeran dauden emakumeen egoerak eta beharrak: Gehienez 15 puntu.

d) Erakundeak generoaren inguruko barne politika izatea: 5 puntu.

e) Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren sensibilizatorako edota deuseztatenerako programak eta jarduerak egitea: Gehienez 10 puntu.

f) Laguntza beharrean dauden emakume zaintzaileen egoera ikusgarri egiten duten sensibilizazio jarduerak egitea, eta pertsona hauek dauden egoera hobetzen laguntzen duten jarduerak edo programak aurrera eramatea: Gehienez 10 puntu.

a) Realizar las actividades en las que se ha fundamentado la concesión de la ayuda y justificar el cumplimiento en plazo de todas las condiciones establecidas en el acuerdo de dicha concesión.

b) En el caso de producirse alguna modificación en cualquiera de los apartados tenidos en cuenta a la hora de conceder la subvención, deberá comunicarse dicho cambio al órgano concedente.

c) Comunicar al Ayuntamiento de Astigarraga la obtención de otras subvenciones o ingresos destinados a financiar las actividades subvencionadas.

d) En toda publicidad relacionada con la actividad subvencionada deberá constar el patrocinio del Ayuntamiento de Astigarraga, insertando el escudo del municipio.

2) Cumplir en todas las actividades subvencionadas con la ley de la utilización del euskera 10/82 de 24 de noviembre 1982, así como los criterios de uso euskera aprobados por el Pleno Municipal de Astigarraga el 04/03/2014 y la ley 2/2016 de administraciones locales de Euskadi.

3) Cumplir los principios generales de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y hacer un uso no sexista del lenguaje y de la imagen. En concreto: Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán hacer un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, responsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

La memoria final deberá incorporar los datos desglosados por sexo de las personas beneficiarias, usuarias y contratadas con relación al proyecto subvencionado.

Al menos una 40 % de las personas beneficiarias de la actividad deberán ser mujeres, salvo en el caso de trabajar las masculinidades con perspectiva de género.

4) Cumplir la ordenanza municipal y el protocolo de actuación sobre la gestión de residuos.

7. *Unidad administrativa encargada de la tramitación.*

Las solicitudes serán tramitadas por el Área de Igualdad y la propuesta de resolución la formulará la Comisión informativa de Igualdad y Participación.

8. *Criterios de valoración. Criterios a cumplir.*

En la adjudicación de subvenciones se valorarán los siguientes puntos:

a) La estructura y calidad técnica del programa presentado en cuanto al análisis previo de la necesidad existente, formulación de objetivos, metodología propuesta, actividades propuestas, presupuesto, cronograma, impacto previsto (personas destinatarias) y mecanismos de seguimiento y evaluación: Hasta 20 puntos.

b) Participación de la población destinataria en las actividades y/o programas presentados: Hasta 10 puntos.

c) La consideración en el diseño y ejecución de los programas o actividades, las diferentes situaciones y necesidades de las mujeres que sufren discriminación múltiple y se encuentran en riesgo o situación de exclusión social: Hasta 15 puntos.

d) La entidad cuenta con una política de género interna: 5 puntos.

e) La realización de programas y actividades para prevenir y eliminar la violencia contra las mujeres, así como para apoyar a sus víctimas: Hasta 10 puntos.

f) La realización de actividades de sensibilización que visibilicen la situación de las mujeres cuidadoras de personas dependientes, y actividades o programas que intervengan para mejorar la situación en la que éstas se encuentran: Hasta 10 puntos.

g) Emakume elkartearen arteko lankidetzaren sareak sustatzea, instituzioek emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko sortu dituzten organoetan emakumeen partaidetza sustatzea bezalakoak: Gehienez 5 puntu.

h) Gizonezkoek etxean, familian eta gizartean duten erantzukizun eta ardura sustatzera bideratutako sentsibilizazio jarduerak egitea: Gehienez 10 puntu.

i) Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista lantzea bai jarduerak egiteko unean bai hauen zabalkundearenean erabiltzen diren materialetan: Gehienez 10 puntu.

j) Dagokion jarduera eremuan euskararen erabilera sustatzea: Gehienez 5 puntu.

9. *Dirulaguntzen zenbatekoa eta gastu hautagarrien xehetasunak.*

Deialdi honetan zehazten diren dirulaguntzak Berdintasun eta Partaidetza Batzordearen aurrekontuko honako diru-ataletatik emango dira:

– 1 1000.481.01.327.11 «Berdintasuna: transferentziak» diru-atala, 2.983,60 eurokoa.

Aurrekontuaren kopurua iritsiko ez balitz dirulaguntza jasotzeko eskubide duten eskabide guztiak betetzeko, dagoen dirua egindako eskari guztien artean banatuko da proportzionalki, partida agortu arte.

Hala ere, aipatu kopurua gehitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

Gastu hautagarriak dira jarduerak zuzenean dakartzanak; esate baterako, elkartearen mantentzea, dokumentazioa, materialak, prestakuntza, inprenta, zabalkundea, laguntza teknikoak, joan-etorriak, aretoak alokatzea, eta abar. Diruz lagunduko dira aurkeztutako proiektuaren % 10a gainditzen ez duten gastu hautagarriak. Entitate eskatzaileari ez zaizkio inolaz ere diruz lagunduko pertsonal-gastuak.

10. *Justifikazio eta ordainketa moduak eta epeak.*

% 70a dirulaguntza onartutakoan emango da, eta gainerako % 30a jarduera burutu eta, dirulaguntzak onartzeko udal-ordenantzarri jarraiki, justifikatu ondoren. Beti ere, agiriak beranduen jota 2021eko urtarrilaren 31 a baino lehen aurkeztu beharko dira. Dirulaguntza justifikatzeko ezinbestekoa da Astigarragako Udaleko dirulaguntzak emateko erregelamenduaren 12. artikuluan jasotako agiriak aurkeztea.

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein motako dirulaguntzekin, baina ez da gain finantzaketarik onartuko. Kasu horretan, Astigarragako Udalak bere dirulaguntza murriztuko luke eta bideratuta balego, elkarteak jasotako laguntza itzuli beharko luke.

Astigarraga, 2020ko urriaren 27a.—Xabier Urdangarin Lasa, alkatea. (5697)

g) El fomento de redes de colaboración entre asociaciones de mujeres y de la participación en los órganos creados por las diferentes instituciones para la promoción de la igualdad de mujeres y hombres: Hasta 5 puntos.

h) La realización de actividades de sensibilización orientadas a fomentar la corresponsabilidad de los hombres en el ámbito doméstico, familiar y social familiar: Hasta 10 puntos.

i) El uso no sexista del lenguaje y de imágenes no sexistas en los materiales que se empleen tanto para la realización de las actividades como en la difusión de éstas: Hasta 10 puntos.

j) El fomento dentro de su ámbito de actuación de la utilización del euskara: Hasta 5 puntos.

9. *Cuantía de la subvención y detalle de los gastos elegibles.*

Las subvenciones a conceder a través de la presente convocatoria serán con cargo a la siguiente partida del presupuesto de la Comisión de Igualdad y Participación:

– 1 1000.481.01.327.11 «Transferencias Igualdad» por un importe de 2.983,60 €.

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a subvención, se procederá al reparto proporcional del dinero presupuestado entre todas las solicitudes presentadas en el año, hasta agotar la partida.

Dicha cantidad podrá ser objeto de ampliación, de conformidad con lo previsto en las Bases de Ejecución de Presupuesto Municipal.

Se considerarán gastos indirectos aquellos gastos derivados indirectamente de las actividades a desarrollar, como pueden ser: mantenimiento de la asociación, materiales, formación, imprenta, difusión, desplazamientos, alquiler de salas, etc. Se subvencionarán los gastos indirectos siempre que no superen un máximo del 10 % del total del proyecto presentado. En ningún caso serán subvencionables los gastos de personal de la entidad solicitante.

10. *Forma, plazos de pago y justificación.*

El 70 % de la misma se abonará una vez aprobada la concesión de la misma y el 30 % restante tras justificar los gastos de acuerdo con la ordenanza municipal de subvenciones que en todo caso ha de hacerse antes del 31 de enero de 2021. Para justificar los gastos será imprescindible que se presente la documentación que figura en el artículo 12 del Reglamento para la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Astigarraga.

Las ayudas de esta convocatoria son compatibles con cualquier otra ayuda siempre y cuando no haya sobrefinanciación, en cuyo caso, el Ayuntamiento de Astigarraga reduciría la cuantía de la ayuda y, en caso de estar ya abonada, la asociación debería devolverla.

Astigarraga, a 27 de octubre de 2020.—El alcalde, Xabier Urdangarin Lasa. (5697)